



MOVILVET

**GARBIA, ZAINDUTA,
ZORIONTSUA ETA
ETXETIK MUGITU GABE**

Garazi Garai, Usue Fuente eta Nadia Becerro



MOVIL VET

ZERTAZ DOA MOVILVET?

Gure enpresaren deskribapena:

Movil vet, furgonetaz albaitaritza zerbitzua eskaintzen duen enpresa da. Gure enpresa landa-eremuan lan egiten du, non albaitari falta dago eta hor bizi den bizanleria (gehienak adinekoak) ezin dute hirietara joan haien animalien ongizatea bermatzeko.

Gure furgonetekin zure etxera joango gara eta hor hainbat zerbitzu eskainiko dizuegu:

- **Garbiketa:** animaliak dutxatu, arkakusoak kendu.
- **Higienea:** azazkalak moztu, hortzak garbitu.
- **Osasuna:** txertoak eman, zauriak sendatu, odol analisiak, alergiak tratatu...

Honetaz aparte, furgonetan denda sektore bat daukagu non produktu anitzak eskaintzen ditugu animalien ongizatea hobetzeko. Adibidez:

- **Xampuak**
- **Koloniak**
- **Animaliaren alergietara egokitutako janari espeziala**
- **Belarriak garbitzeko produktua**
- **Hortzak garbitzeko pasta**